



IKUS-ENTZUNEZKO PLATAFORMAREN PRENTSA OHARRA KONTRATU-PROGRAMAREN DEUSEZTATZEAREN ETA EITB-REN AURREKONTU MURRIZKETEN AURREAN

Ikus-entzunezko Plataforma osatzen duten elkarteek —IBAIA Produktoreen Elkarte, EHGEPE Euskal Gidoigileen Elkarte eta EAB Euskal Aktoreen Sindikatua—, Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura Kontseilariak eta Alberto Surio EITBko zuzendariak pasa den ostegunean egindako agerraldian iragarri zituzten Kontratu-programaren erabateko ezabapen eta EITB-ren aurrekontu murrizketa larrien aurrean, honakoak adierazi nahi dituzte:

- 1) Euskal Ikus-entzunezko sektorea hil ala biziko egoeran dagoela. Kontratu-programa ezerezean uzteko erabakia ez da panorama hondatu baterako azken pausoa baizik, irratia telebista publikoaren aurrekontua zein gestioa zehaztu gabeko eremuan murgildurik dauzkagula, sektoreko enpresak itxi beharrean eta profesionalak lanik gabe daudelarik.
- 2) Azken bi urteotan EITB-ren aurrekontua %9a jaitsi dela. Murrizketa hau, ordea, ez da arlo guztietan berdina izan, elkarte sinatzaileei dagokien enkarguzko produkzioen arloan %26 jaitsi baita, eta hori eutsi ezinezko mozketak da dela honetan dela edozein sektore produktibotan. Halako murrizketa handiak katearen programaketaren pobretze orokorra ekarri du, batik bat fikziozko telesailak ia desagertu arte, azken batean hainbat proiektu bazterrean geratuz, profesionalak ihes orokorrera bultzatuz eta euskal ikus-entzunezko sektorearen profesionalizazio eza sortuz. Orain %8ko murrizketa iragartzen digute hurrengo urterako, eta hori hala izanik sektorearen agur betikoa izango da.
- 3) EITB-ren aurrekontuen murrizketak erakunde publikoaren oinarriko betebeharrak hausteraino eraman dezakeela, izan ditugun gobernuen araudietan ezarri eta Euskal Parlamentuak bermatu duenari begiratzen badiogu: hauetan, ikus-entzunezko sektorea "gure kulturaren eta ekonomiaren sektore estrategikoa" izendatzen baita, beraren jardura "gure herriaren kultur nortasunaren oinarriko osagarritzat" hartzen den bezala.

Aurreko guztiengatik, eta sektorearen biziraupena kinka larrian dagoela, ESKATZEN DUGU:


1) Euskal Parlamentuan gure telebista publikoaren ereduari buruzko eztabaida prozesua abiarazi dadila, inplikaturik dauden alde guztien partaidetzarekin, EITB-ren zerbitzu publikoaren funtzioa zehazteko, baita bilakatzeko ere EITB-ren eta euskal ikus-entzunezko sektorearen arteko harremana arautzeko plan estrategikoa, aisia-saioak, fikziozko telesailak, haurrentzakoak, dokumentalak, lehiaketak... kalitaterik gabeko telebista publiko batean ezinbestekoak diren saio mota guztiek leku izan dezaten.

2) Eusko Jaurlaritzak aurrekontuari dagozkion premiazko neurriak har ditzala, telebista publikoaren ereduari buruzko eztabaidak iraun artean, bai EITB-ren baita euskal ikus-entzunezko sektorearen bideragarritasuna bermatuta gera dadin.

Bilbo, 2011ko Urriaren 10



Javier Etxaniz
Euskal Gidoigileen Presidentea



Martxelo Rubio
EABren Presidentea



Joxe Portela
IBAIaren Presidentea

Kontaktua:

María Madarieta
Komunikazioa

Juan Fermín Gilisagasti 4, 3ª planta, oficina 303 (Zuatzu)
20018 - Donostia-San Sebastián
Tel.: +34 943 32 71 83 - Fax: +34 943 27 54 15
E-mail: info@ibaia.org
Web: www.ibaia.org